

KONTROL MOZIOA

Langileen Aukera Berdintasuna eta Diskriminaziorik Eza Bermatzeko Batzorde Teknikoa dela eta.

Naiara Sampedro Perez EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2016ko otsailaren 15ean Zerbitzu Orokorren Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Badira zazpi hilabete Udal Gobernua eratu zenetik. Eta horren aurrean, Udaleko batzorde guztien deialdiak burutu eta beraien eginkizunetan jarraitu ahal izateko, kide berriak izendatu eta legealdiko helburu eta lehentasunezko neurriak konpartitzea legezkoa da.

Langileen aukera berdintasuna eta diskriminaziorik eza bermatzeko batzorde tekniko ez da deitu oraindik eta bere funtzioari ez zaio jarraipenik ematen ari.

Otsailaren 15eko Zerbitzu Orokorren Batzordean, zinegotzi ordezkariak batzordea epe motzean deituko zuela adierazi zuen, baina berdintasun politiketan ematen ari den geldiupe eta informazio faltaren aurrean jada, sinesgarritasuna galtzen ari da.

Horiek horrela, hauxe da aurkeztutako

KONTROL MOZIOA:

.- Udalbatzak eskatzen dio Udal Gobernuari martxoaren 8a baino lehen Langileen Berdintasunerako eta Diskriminaziorik Eza Bermatzeko Batzorde Teknikoa eratu eta bertako ordezkariekin datozen urteetarako lan ildoak partekatu eta adostasunak bilatzeko.

Donostian, 2016ko Otsailaren 19an

Naiara Sampedro Perez
EH BILDU udal taldeko zinegotzia